

6. KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat abian jartzeko, ezinbestekoa da hasierako kostuen plangintza zehatza izatea. Kostu-egitura honek gure negozioaren lehen urratsak sendo eta jasangarriak izatea bermatzen du, baliabideak modu egokian esleitu ahal izateko. Gure kasuan, turismo-agentzia eta banku-funtzioak konbinatzen dituen negozio-eredu berritzailea izanik, hainbat arlo estrategikotan inbertitzea beharrezkoa da: azpiegiturak, teknologia, lankidetzak-akordioak, eta marketin-kanpainak, besteak beste.

Hona hemen gure enpresaren hasierako kostu nagusiak kategoriaz kategoriaz, baliabideak eta funtzionamendu optimoa bermatzeko helburuarekin. Egitura honi esker, gure zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna eta merkatuan lehiakortasuna bermatuko ditugu.

Kostu Kategoria	Zehaztasuna	Kostu Mota	Zenbatekoa (€)
Azpiegiturak eta egoitza	Bulego baten alokairua, instalazioak, eta altzariak	K.F.	12.000 €/urtean
Langileen gastuak	Administrazioa, salmenta-taldea eta zerbitzu-teknikariak	K.F.	50.000 €/urtean
Aplikazio eta web garapena	Turismo- eta finantza-zerbitzuetarako plataforma garatzea	K.F.	30.000 € (behin)
Marketin kanpainak	Hasierako promozioak: sare sozialak, SEO eta publizitatea	K.A.	15.000 €
Lankidetzak-akordioen kostuak	Akordioen kudeaketa eta lotutako kuotak	K.A.	10.000 €
Software eta teknologia	Ordainketa-pasabideak, transakzio- eta kudeaketa-softwarea	K.F.	8.000 €/urtean
Segurtasun eta lege-zerbitzuak	Datuen babesa, aseguruak eta aholkularitza juridikoa	K.F.	5.000 €/urtean
Finantza-operazioen fondoak	Banku-zerbitzuetarako kapital erreserba	K.F.	20.000 €
Bidaiei kudeaketarako funtsa	Bezeroentzako ordainketen aurrerakinak kudeatzeko	K.A.	25.000 €
Oinarrizko gastu operatiboak	Elektrizitatea, internet, telefonoa, bulegoko materiala	K.F.	3.000 €/urtean
Guztira: 178.000 €			